Alde batetik 1993ko azaroan auzoko bilioteka, ludoteka eta eskulantailerraz osatutako Ezkiaga Auzo-Etxea inauguratu zen. Bertan Porteria Auzo Elkarteak bere bulegoa izateaz gainera, lehen aipatutako zerbitzuak eskeintzen dira bibliotekan zeuden liburu errepikatuez eta Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzaz erositako liburuez osatuta.

Kultur Etxeko Biblioteka berriz, Eusko Jaurlaritzako Udal Bilbioteken informatizazio programan sartzeko Gipuzkoako zortzi bilioteken artean aukeratua izan da; ekipamendua eskatua izan da eta aldizkari hau argitaratzen denerako esan dezakegu ordenagailuak bertan izango direla eta pertsonala datuak sartzen artuko dela ziurrenik. Horrek etorkizunean liburuen kontsulta zuzenean pantailan egin ahal izateko aukera emango du, mailegua-zerbitzua erraztuko du eta Udal Biblioteken arteko harremana sendotu eta erreztuko du sare berean konektatuta egongo dira eta.

Beste funtsezko azpiegitura bat eta pausoka pausoka eraikitzen ari dena udal-antzokia da. Nahiz eta pentsatutakoa baino zertxobait txikiagoa izan, 500 eserlekutara ez baita iristen, azpiegitura arloan etorkizunean ongi ekipatua izateko beharrezkoak diren baldintzak beteko ditu. Bertan zine komertziala eta zine klubaz gain, antzerki eta dantza emanaldiak musikamota guztietako kontzertuak edo bestelako ikuskizunak (magoak, haurren ikuskizunak, e.a.) edo hitzaldiak ematea aurrikusten da, horretarako ongi egokitua izango baita.

Operetak programatzeko Gipuzkoako antzokietako gutxik duten orkestarentzako foso txikia izango du, nahiz eta erabiltzen ez denetan itxita egon eta jendearentzat eserleku gehiago jartzeko aukera eman.

Antzokiaren eraikuntza aurtengo abuztuan bukatzea pentsatzen bada ere, beste bi hilabete barrua ekipatzen eta egokitzen beharko direla pentsatzen dut eta irekiera ofiziala urte amaieran egin ahal izango da.

Baina ez dira hor kultur azpiegituren berriak amaitzen. Behin baino gehiagotan hitzegin ohi izan den Arte Plastikoentzako Zentruaren proiektua ere martxan dago. INEMekin hasieran hitzegindakoa atzera egitean lehenengo proiektuak lur jo bazuen ere, eraikuntzaren birmoldaketa planteatzen hasi da eta Arte Plastikoentzako Zentru gisa aurrera egingo duela dirudi; bidean da behintzat.

Eta bukatzeko, esan baino ez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegula herriko talde, elkarte, eta kultur lanean aritzen diren pertsona guztiei, beraien laguntzarik gabe ezinezkoa izango bailitzaiguke, ekintza horiek guztiak eta kultura bizia dagoen bezala mantentzea, edota gozatzen ari zareten jai egitaraua prestatzea. Mila esker guzitoi!

Bestalde edozein kezka, ekimen edo proposamen duen edonori ere, kultur sailarekin harremanetan jar daitekeela edota astelehenero, 7etan egiten den bilerara etor daitekeela aipatu baino ez.

Beasain, 1.994ko otsailak 17

"UNA PICA EN ORDIZIA"

Daniel García

Beasain eta Ordizia amaierarik gabeko tirabira. Baina ez dakizue zein poza sentirtzen den Beasaindar batzuk Ordizian sukaldaritza txapelketa bat irabazi dutela jakitean. Zein izan liteke poz hori sentitzearen arrazoia? Aspaldidanik, Beasaindarrak eta Ordiziarrak gordeta dugun zerbaiten eragina da. Hala ere, zenbaitetan ondo eramaten saiatzen gara eta lortu ere lortzen dugu, bestela galdetu Ordiziko farmazeutikari zer moduz afaltzen den Beasainen.
Festivo 1.994

La historia, la vida a través del tiempo, ha estado siempre llena de parejas célebres: en el amor Romeo y Julieta, en los toros Aparicio y Litri, en el fútbol Mauri y Maguregui; pero en la cocina de élite no había pareja famosa e indisoluble tal vez porque los locos de los fogones siempre han sido un tanto egocentristas y muy individuales.

Hasta que un día del pasado mes de setiembre, en el vecino pueblo de Ordizia, se organizó un concurso gastronómico con un premio para la pareja ganadora de ¡cien mil pesetas!. (Sí, ha leído bien, a pesar de la crisis).

Xabier Arrizabalaga y Vicente Iraola estaban en el Nagasaki -qué raro-cuando se enteraron, cogieron el perejil y otros bártulos y se presentaron al concurso, previa consulta al Sr. presidente de la sociedad "Murumendi" para no arrogarse la representación sin su consentimiento.

Arrizabalaga e Iraola, primer premio del III Concurso Gastronómico.

Se trataba de cocinar dos platos con productos autóctonos: tartaletas de hojaldre al queso Idiazabal y pollo de caserío de la "Murumendi" fueron los manjares que llevaron a la pareja beasaindarra al podio, primero, y a la posteridad después.

En la entrega de premios, una dama ordiziana se interesó por el origen de los ganadores y, al enterarse que eran de Beasain, hizo un mohín de contrariedad. Era doña Lola, ¡la boticaria!. La que regala chupetes a los municipales por si lloran los niños por las noches. Su simpatía y curiosidad le llevaron a interesarse por la elaboración de los platos, y la ya famosa pareja de restauradores la invitó a cenar otro día, en la sociedad "Murumendi", volviendo a guisar en su honor los mismos platos del concurso.

Allí compartimos mesa y mantel con doña Lola y su equipo farmacéutico, deleitándonos con sus anécdotas y su increíble jovialidad.

Al final, se brindó por los cocineros, por doña Lola y hasta por dos pueblos "unidos por la discordia" que ya es brindar, que ya es decir.

En lo sucesivo, esperamos más éxitos de esta pareja Xabier/Vicente, que podía haber clavado una pica en Flandes, pero que prefirieron clavarla: ¡en Ordizia!.

PASTELERIA - GOZOTEGI

iNTAKi

ESPECIALIDAD EN BOMBONES • BONBOI GOXOAK

Zaldizurreta, 1 • Teléfono: 16 16 18 • BEASAiN

ATSEDENEZKO LANA

Nuestra mentalidad social, con respecto al concepto del trabajo y al del descanso, es puesta aquí en tela de juicio. Solemos ver el trabajo como un castigo bíblico o como una obligación no deseada que se debe realizar y, por el contrario, el descanso suele ser tenido por fuente de satisfacción y placer. De todos modos, ¿son en realidad antinómicos ambos conceptos? No siempre. El presente artículo trata de demostrar que el trabajo bien entendido puede ser agradable y placentero, mientras que el no hacer nada -sinónimo frecuentemente de descanso, en nuestra mentalidad- puede acarrear hastío o insatisfacción. Como aval de tales asertos nos muestra el pensamiento de importantes corrientes humanistas, tales como el marxismo y cristianismo, y recoge la idea de trabajo placentero -¿Pasaremos de la idea a la praxis?- en un breve paseo literario: J.M. Artze, Michael Ende, Pío Baroja, Juanjo Dorronsoro...

Xabier Gartzia

Aspaldiko partez, J.M. Artzeren poemategiak birleitzeari ekin diet eta "LANA, LANA..." poematxoraino iristean, ezinbestean alto egin eta, irakurketa mediante, nire barne-muinetan halakoxeko asaldura eta gozamena tartekatu dira. Eguneroko iharduna, nirea barne dela, noiz gogaikarri samarra eta noiz plazerrezko zipriztinez hornitua suertatzen ote zaigun itaundu bide dit poematxoak eta, erantzuna zeharbidetik ematea hobe iritzita nonbait, Gigi Cicerone (Michael Ende-ren luma argiak sortutako Gigi argitsua) etorri zait burura erantzun-emale.

Dakikezuenez, ipuinak kontatzea zen Gigiren grina. Ipuin kontari aritzen zenetan, bere fantasia udaberriko soroak bezala loratzen zelarik, bai haurrak eta baita helduak ere biltzen ziren Gigiren ingurura, bere istorioak entzuteko asmoz. Egun eta asteetan zehar kapitulo askotan luzatzen ziren ipuinak kontatzeko gauza zen eta inoiz ez zitzaizkion ateraldiak agortzen. Istorio bakoitza maitu eta gero boneta pasatzen zuen, eta jendeak txanpon edo bilete batzuk luzatzen zizkion. Ez zuen agian diru gehiegi bilduko, baina, bizitzeko lain bazuen behintzat eta, hori eta horrenbestez zoriontsua zen. Kontalari aparta izanik, ordea, laster asko heldu zitzaizkion lankontratoak: lehenbizi bidai-agentzi batetik -autobusetako turistei hizkirimiriak- eta kontatzeko-, gero irratitik eta, azkenik, telebistatik. Harrezkero miloika zituen entzuleak, eta diru-mordoak irabazten hasi zen. Ordutegi zehatz bati eutsi beharra zuen ordea eta, jakina, ipuin berriak lehen bezala asmatzeari utzi egin zion. Jadanik ez baitzuen betarik. Bere ipuinak gero eta kirtenago eta sentimentaloideago bilakatuz joan ziren eta, arrakastaren erpinean zegoen arren, ezer berririk sortu gabe ipuin berak behin eta berriz errepikatu behar zituenez, ez zuen alaitasunik. Ordurako bere entzulegoaren pailazo, txori-pitto bihurtua zen, eta behiala bere maitasuna izan zen iharduera hura (ipuinak kontatzea) gorrotatzen hasi zen. Dena galdua zuen Gigik.

Famak harrapatu aurretiko Gigi hura miresten dut nik, atsedenezko lana egiten baitzekien, ez baitzen lanak ekarri ohi duen obligaziozko gurpil zoroan sartu. Horra hor,

Barojak azaltzen digu batzuentzat lana dena, beste zenbaitzuentzat denbora pasa izan daitekeela, eta alderantziz.

beraz, lanaren ezaugarririk nabarmenetako bat: obligazioa, edo "beharra" Bizkaian esaten duten legez. Gainera, lana, kristau ikuspegi batetik begiratuta, zigorra da. Zigorra adierazten digu mehatxu gogor baten gisara Jainkoak jaulkitako "zeure bekokiko izerdiaz jango duzu ogia" delakoak. Dena dela, Marxek dioenez, jatorrizko bekatua ez omen zen agertu Paradisu hartan Ebak eta Adanek egin zutena egin zutelako, gizakioi gauzak pilatzeko neurrigabeko irritsa piztu zitzaigulako baizik. Geroz eta gauza gehiago eduki nahi izateari ekin genionetik, lana ez da plazerraren sinbolo izan, eta tragediaren seriotasunez jantzi da. Bestalde, guztiz erroturik dugu gure gizartean lanaren irudi tristea, eta inkontzienteki bada ere, haurrren hezkuntzan ere irudi hori sendotzen ahalegin franko egiten ditugu. Haur eta ikasleei "Aurki oporrak, ze ondo, eh?" "Bai ederki bihar eta etzi-larunbata eta igandea-, eskalara joan gabe" eta halatsuko esaldiak esatearekin batera, "A ze pena bihar berriro eskolara joan behar izatea" bezalakoak ere esaten dizkiegu sarri askotan. Mezu hori zabalduta, lana atseginaren kontrako zerbait dela zabaltzen ari bagara, zer amodio- moeta eduki diezaioke haur, gazte zein heldu batek lanari?

Orain arte esandakoek lana ekintza atsegingarri bat bihurtu behar dugula irakasten digute. Lana ez litzateke dirua irabazteko bakarrik egin beharko. Gozamena geureganatzea izan beharko luke lanaren helbururik behinena. Nahiz eta "primun vivere deinde philosophari" esaldiak egia dioen, hots, nahiz eta gogoa baino lehen urdaila elikatu beharra dagoen eta urdaila elikatzeko dirua behar-beharrezkoa izan, hala eta guztiz ere, egia ere bada gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, Ikuspuntu horri buruz Marxen iritzia iruditzen zait eder askoa. Marxen aburuz, dirua, boterea, eta abar, behar alienagarriak dira behar kuantitatiboak direlako. Maitasuna, adiskidetasuna, atsedena... berriz, behar kualitatiboak direnez, gizatiarrak dira. Dagoeneko zaharkiturik omen dagoen komunismoaren proposamena -proposamen bikaina, alafede! - behar kuantitatiboak kualitatibo bihurtzea da. Ideia hori hitzez hitz aldatu dut hona Juanjo Dorronsoroen "Zergatik lana?" liburutik.

"Zergatik lana?" aipatu dudanez, eta bidenabar horren irakurketa biziki gomendatuz, ezin diot liburu horretan azaltzen den Pio Barojari buruzko pasarte bat hona ekartzeko tentazioari eutsi. Honela dio: "Pio Baroja-ri, Bera Bidasoa-ko etxe atarian eserita zegoela, norbaitek galdetzen bazion: Aizu, Don Pio, deskantsatzen? berak erantzuten omen zion: ez, lanean. Eta baratzean aitzurrean ikusten zutenean, galdetzen bazioten: Don Pio, lanean?, erantzuten omen zuen: ez, deskantsatzen".

Ondo baino hobeto azaltzen digu Baroja handiak batzuentzat lana dena beste zenbaitzuentzat denborapasa izan daitekeela, eta alderantziz. Ez daude, beraz, zehatz-mehatz mugatzerik lana eta aisiaren esparruak. Noiz den lana eta noiz aisia edo atsedena, hori norberaren gogoak bakarrik erabakitzen du. Guztiarekin ere, aisia, ene ustez, ez da derrigorrez lanik ez egitea, lan atsegingarriak egitea baizik. Printzipio horrixe, atsedenezko lanak egiteari alegia, heldu eta eutsi beharko genioke ahal dugun gehienetan, hartara satisfakzio-maila geroz eta altuagoak iritsiko baikenituzke.

INGAR

ARRAINDEGIA

IGARTZA OLETA, 18 - TEL. 881993 - BEASAIN

Cortes

Tejidos y Confección

Planta baja: ARTICULOS DE HOGAR

Sábanas, Toallas, Mantas, Mantelerías, etc.

Mayor, 42 Teléfono, 88 12 77 BEASAIN

MIRANDO DE REOJO A LOS JOVENES FRANCESES

Lo que ha sucedido durante el mes de marzo último en Francia, y que todavía no ha terminado, con continuos y cada vez más violentos enfrentamientos entre los jóvenes y los miembros de las Fuerzas Armadas, es un ejemplo paradigmático, tanto de la actual situación de la problemática general de la juventud en la sociedad de nuestros días cuanto de la evolución de esa misma problemática, en las dos o tres décadas pasadas. Los jóvenes franceses llevan manifestándose, para asombro de propios y extraños, incluso para asombro de los propios jóvenes, durante más de un mes. Generalmente de forma pacífica, además haciendo todo lo posible para que la violencia no se alíe a la manifestación de protesta, desvirtuándola, aunque a veces grupos de agitadores, sea profesionales, sea gratuitos, o los desmanes de la propia policía, concluyan en acciones violentas.

Algunos comparan estas manifestaciones con las de mayo de 1968. Entonces, como ahora, se produce un sobresalto desde las filas estudiantiles, se ataca a un gobierno que se siente cada vez más incapaz de reaccionar, y se pretende aliar el descontento estudiantil con la situación social general del país. Pero las diferencias entre ambas movilizaciones son mayores que las semejanzas. como señalan algunos sociólogos franceses (L. Joffrin por ejemplo), la revuelta de 1968 era la revuelta de la esperanza en una nueva sociedad. La revuelta de 1994 es la revuelta de la desesperanza. Es como si el futuro se apareciera negro o, más exactamente, no se vislumbrara futuro alguno. El año 1968 se creía en la política, había confianza en la solución de los problemas, mediante acciones políticas, mediante cambios en las cúpulas del poder. Hoy los jóvenes ya no creen en la política, en la solución a sus problemas mediante acciones políticas y de los políticos. Todas las encuestas europeas, que tenemos ocasión de manejar, indican, de forma abrumadora, que los jóvenes tienen más confianza en instituciones como la familia, la prensa, la justicia, el sistema de enseñanza o las iglesias que en la política y los políticos.

Ciertamente, hay datos objetivos que ayudan a comprender estos fenómenos. Citemos aquí dos de naturaleza bien diversa. Por un lado, la distinta situación del paro en 1968 y 1994. El año 1968, en Francia, había 300.000 parados. Actualmente hay diez veces más. Por otro lado, en el año 1968 llevaban muchos años con un gobierno de derechas. En lo que era la experiencia vital de un joven de 20 años solamente habían conocido en el poder de De Gaulle. Para ellos todavía el socialismo era una alternativa de cambio. Había un horizonte político posible. Por contra, el joven francés de 1994 solamente ha visto un Presidente en su experiencia vital: el socialista Mitterand, actualmente con un Primer Ministro de derechas, Balladur, con el que parece entenderse a las mil maravillas y que además es cada vez más claro que está pensando en sucederle. El horizonte futuro para este joven es el presente. Triste presente, donde le devalúan los estudios realizados con un contrato, llamada de inserción profesional, en el que va a ganar entre un 30% y un 80% del salario mínimo, y sin seguridad alguna de continuar en el empleo una vez pasado el período de prueba. Como dicen los propios jóvenes, para eso prefieren seguir en la Universidad -que así es, cada vez más, un colchón contra las estadísticas del paro- o bien trabajar unas horas a la semana en los grandes almacenes o en las empresas del "fast-food" y estudiar algo el resto del tiempo o, más simplemente, vagabundear, adquiriendo así, cada vez, más boletos para la desesperanza y la exclusión social.

Javier Elzo

En efecto, no hay que olvidarlo, la gran diferencia entre la juventud de 1968 y la actual radica aquí: mientras los jóvenes de 1968 pretendían transformar la sociedad, mediante la violencia si fuera preciso, aunque no la buscaban salvo los agitadores profesionales revolucionarios, los jóvenes de 1994, lo que realmente buscan es, insertarse en la sociedad, formar parte de la sociedad que sus progenitores de 1968 le han proporcionado y en la que están creciendo. Una sociedad donde se ha pretendido instaurar el llamado "estado de bienestar", pero que corre el riesgo de quedar estrangulada por tanta norma, dirigismo, concentración de dinero y poder (con sus consecuencias de corrupciones gigantescas), con tanta burocracia y control que, con 10 años de retraso, acaban dando la razón a Orwel. Así el joven, muchos jóvenes, se dicen que por qué van a esforzarse, que sus maravillosos padres, que tan "generosamente" lucharon hace 25 años para cambiar una sociedad, cumplan sus promesas y, de verdad, les permitan el ingreso en esa sociedad del bienestar... o que les mantengan en sus casas con las comodidades que, gracias a su revuelta (la de los padres), han conseguido.

Cuando volvemos los ojos a nuestra propia juventud, a uno le queda un doble sentimiento, compartido entre el temor y la esperanza. Temor porque, en más de un aspecto, la situación de la juventud vasca no solamente es asimilable a la francesa, sino que está, objetivamente hablando, en situación aún peor. Basta recordar que las cifras de paro juvenil entre nosotros, sin querer entrar en guerras de cifras, son notablemente superiores a las de los jóvenes franceses. Y la situación social y del mercado de trabajo en Euskadi está como está: mal. Pero la esperanza, y quisiera no caer en un voluntarismo optimista, está en que nosotros tenemos, objetivamente hablando, un horizonte posible, más aún un reto vital: la construcción o la desaparición de nuestro país. En el actual marco europeo, con la eliminación cada vez mayor de toda frontera económica, social, cultural, etc, un pueblo pequeño, como el nuestro, solamente se preserva si se hace fuerte. La fortaleza puede provenir, precisamente, de su debilidad, a condición, entre otras cosas, en las que no puedo entrar aquí pues exigiría al menos otro artículo, de que haya voluntad para ello luego proyecto, horizonte, norte, objetivo. Ello está en nuestras manos. Primaria y principalmente en nuestras manos. Olvidémonos de las "botas" de Madrid, París, Bruselas o Nueva York, como si nuestro futuro estuviera fuera de nosotros. Este pueblo ha demostrado en muchas ocasiones su capacidad de preservar lo particular en lo universal, parafraseando a Txema Montero. ¿Por qué no ahora?. Y aquí no valen disputas entre jóvenes o mayores. Son necesarios los jóvenes y los mayores.

Donostia San Sebastián 27 de Marzo de 1994

ZERTAN ARI GARA GAZTETXOEKIN?

Andoni Sarriegi

Beasainen 1992-93 ikasturtean, 1762 eskolume ibili ziren Haurreskola, Eskolaurre eta OHOn. Horietatik 997 (% 56,6) D eta D' ereduetan eta 765 (% 43,4) B ereduan. B eredukoen artean, astean 12 ikastordutan gaiak euskaraz ematen dituztela diotenetatik 18 ematen dituztela diotenetarainokoak daude. Ikastetxe-atarietan 1992an egindako neurketetan ordea, % 75 (D eredu hutsekoetan), % 25 (D eta B ereduak daudenetan) eta % 0 (B eredu hutsa dagoenetan) izan ziren emaitzak. Herri osoan egindako neurketetan berriz, 0-14 urte bitartekoen erabilpena, % 38,3koa neurtu zen batezbeste herriko leku desberdinetan. Zuk honez gero irakurle galdera ezpainetan izango duzu. Zer gertatzen da irakasten den horri errenta gehiago ez ateratzeko?

Ondorengo lerroetan saiatuko naiz horri erantzuten. Hasteko, Ikastetxetan egunean 5 ordu sartzen dituzte ikasleek. 10 bat ordu lo eginda ere, egunak 14 ordu eskaintzen dizkie Ikastetxez kanpo bizitzeko. 8 ordu lo eginez gero berriz, 16 ordu. Ordu horien banaketak zerikusi izugarria du hizkuntzaren finkamenduan, hobekuntzan, okerkuntzan eta erabilpenean edo ez-erabilpenean.

Txikienek agian, urtaroaren eta familiaren arabera, 10-12 ordu egin ditzakete etxean. Gaztetxoek alderantziz bizpahiru baino ez askotan. Eta zein hizkuntza erabiltzen da etxetan? Zein hizkuntzatako komunikabideak sartzen dira etxetan? Zenbat ordu sartzen dituzte ume horiek telebista erdaldunak ikusten? Agian ordurik gehienak erdararen orbitan egiten dituzte askok etxean bertan ere. Eta etxetik kanpo?

Askotan, ikasketa osagarriak egitera joaten dira. Begiratzen al da zein hizkuntzatan diren? Akademietako ikastaroak, musika, erlijioa, dantza, kirolak, etab., zein hizkuntzatan gauzatzen ditu ume horietako bakoitzak? Beste batzutan berriz, kalean ordu luzeak sartzen dituzte. Beren artean jolasean balebiltza gaitzerdi askotan. Baina, zenbat aldiz ez dabiltza hainbat bideo, joko eta beste hainbat merkatuko erdal gaien munduan murgilduta? Irakurketen ildoan bertan, zenbat irakurtzen dute euskaraz? Orain ez dute aukera-faltarik!

Umeak hazten doazen heinean berriz, etxean pasatako orduen kopurua murriztu egiten da (2 edo 3raino askotan) eta kalean nahiz ekintza jakinetan pasatakoa izugarri igotzen da (askotan Eskolako orduak baino gehiago izatera iristen da). Euskararen erabilpena jaisten hasten da eta datuek garbi hitz egiten dute. 1992ko neurketan, % 29,6 atera zen 15-24 urte bitarkoen erabilpena. Egia da eskolaz "erdaldunago" hezi izanak direla adin horretakoak baina halere, esandakoaren arabera, harreman-esparrua zabaldu ahala eta kalean nahiz beste herriko leku eta txoko batzuetan ibili ahala, ikastetxeen eta familiaren beraren eragina ere murriztua gertatzen da arlo honetan.

Eta zer esan asteburuez eta oporraldiez? Hor ez dago eskolordurik. Hor dena etxeko orduen (telebista erdaldunen orduak askotan) eta kaleko orduen nahiz iharduera antolatuen orduen artean banatzen dira eguneko orduak. Kirol-entrenamenduak, partiduak, dantzaldiak, mezak, hitzaldiak, mendi-irteerak, zinea, ikuskizunak, etab. erabakiorrak dira euskara erabiltzeko ala ez erabiltzeko. Nik dakidala behintzat, herri honetan, aipamenak egin eta intentzioak askotan azaldu arren, ez dago antolamendurik eta kontzientzia eraginkorrik, iharduera guzti horiek euskara hutsean segurtasunez burutzeko. Ez dago bermetasunik futbol-talde batek euskaraz jokatzeko edo entrenatzeko, ezta mendira doan taldeak euskaraz ziur hitz egiteko ere. Umeen izeneko mezarik ez dago euskara hutsean (ezagutza ona jada % 75etik gorakoa eta ulermena ia % 100ekoa izan arren). Udalak antolatu edota lagundutako ekintzetan ere, ahaleginak etab. egiten direla esan arren, ez da seguru eta ziur hori bermatzen. Are gutxiago bestelako taldetan salbuespenak salbu. Sistematikoki ez behintzat.

Helduen multzoak noski lehengo hizkuntz eskemekin eta erdal erosotasunez funtzionatzen du eskolara bidali eta bere obligazioak bukatu direlakoan. Umeak noski ez dira leloak eta jakitekoak dira prestatu diegun gizarteaz eta bertan erabiltzen diren hizkuntzez dituzten iritziak.

HPINek EHUrekin batera EAEn egin berri duen inkesta batean ("Etorkizuna aurrikusten" deitua bera) azaltzen denez, Euskara Esko-

Zein hizkuntza erabiltzen dute gaztetxoek eskolatik irten ondoren?

larako, askotan familiarako, nortasun-seinaletarako eta agian lagunarte txikietarako hizkuntzatzat hartzen dute eta gaztelania aldiz gizarterako, harreman berriak egiteko eta baliagarri izateko. Edonon eta denetik dagoen arren, EAEn orokorki Eskola Publiko eta Pribatuetakoek (EAEn A eta B eredukoak nagusiki) Euskara jakitea edo ikastera iristea bera dute helburu, gehienera ere ikasgelan erabili ahal izatea eta Ikastoletakoek aldiz jakitea eta erabiltzea oro har. A eredukoek (% 60 EAEn; Beasainen 0) argi eta garbi, zerbait ikastetik haratagoko helbururik ez dute. B-koek aldiz (% 17 EAEn; Beasainen % 43,4) ikasgelan erabiltzea nahikotzat dute eta D-koak (% 23 EAEn eta % 56,6 Beasainen) ageri dira soilik nagusiki ikastetxez kanpo ere erabiltzeko adierazpenak eginez.

Aipatutako irizpide nagusi horiek oso orokorrak dira eta mila zehaztasun, xehetasun eta iruzkin eskain daitezke. Halere, badira gauza batzuek, besteak beste oso garbi daudenak:

- Erabilpen-kopuru handiak lortzeko ezinbestekoa da Ikastetxetako ereduak oso trinkoak izatea (oraingoz D eredukoak).

- Ez da nahikoa ikasgelan ihardutea, ikastorduz kanpoko eskolako ihardunetan ere, ezinbestekoa da euskaraz jardutea.

- Hizkuntza jaso eta erabilpena nahiz kalitatea finkatzeko, ezinbestekoa da ikastetxez kanpoko mota guztietako jardunetan ere euskaraz eta arloz arloko gaiei buruzko lexiko egokiarekin aritzea. Aisialdiko ekintzek eta pentsamenduaren arlokoek (erlijioa, hezkide, etab.) garrantzi izugarria dute hizkuntza naturaltasunez erabiltzera ala ez erabiltzera iristeko.

- Ikastetxez gainera, ezinbestekoa da familian, lagunartean, auzoan eta herrian hizkuntza garatu eta erabiltzea, funtsezko erabilpen-neurriak lortu nahi badira.

Guzti hau kontuan hartuta eta Beasainen ume, gaztetxo eta gazteei eskaintzen zaizkien bitartekoak kontuan hartura, ez dira noski txarrak hasieran emandako zifrak. Helduon eginkizuna da orain, geure bizimoldeak aztertzea eta berrantolatzea. Euskaldunona da erabilpenguneak arlo guztietan antolatzen joatea eta erdaldunena berriz, guna horiei oztoporik ez jartzen saiatzea. Esukaldunon eginkizuna da arloz arloko hizkuntz moldeak hobetu, garatu eta erabilpen kualifikatua bermatzea eta erdaldunena berriz hizkuntza ulertu eta apur bat mintzatzeko adina bederen ikasten ahalegindu eta funtsezko erabilpenari oztoporik ez jartzea.

Ikastetxeek badute zertan hobeturik, baina etxeek eta kaleak are gehiago dute. Azkeneko hauen hobekuntzak, izugarri bultza dezake Ikastetxetako etekina. Hogeitamar urteotan irakaskuntzan egin dena, beste hamar baino lehen kalean egin beharrean gaude. Ikasleek hala eskatzen digute eta egiten ez badugu, gu izango gara mundu honetako fariseorik eta iruzurtirik handienak.

Gastetxoekin eta gazteekin eskolaz kanpoko edonolako ekintza eta ihardunetan aritzen zareten guztioi, gai honekiko gogoeta sakona egin eta behar diren neurri guztiak hartzera gonbidatzen zaituztet. Horretarako laguntzarik behar baduzue, eskatu eta ahaleginduko gara erantzuna ematen baina inolako zalantzarik gabe, lehenengo zeuok egon behar duzue prest egoera hau aldatzeko eta ondoren aurki daitezkeen baliabide-mota guztiak jarri behar dira jardunean emaitzak lortzeko. Helduagoak ahaztu gabe, garaia da Beasaingo umeak eta gazteak EUSKARAZ BIZITZEN HAS DAITEZEN! Horretarako ordea, helduon munduak jartzen dizkien traba eta desbideraketa guztiak kentzen ahalegindu beharra dago.

JOSTUNDEGI
EUGENIO JAUREGI

Nagusia, 21
Telf. 88 08 65

BEASAIN

KAFETEGIA JATETXEA

SE COGEN ENCARGOS DE HORNO PARA LLEVAR

BANQUETES • COMUNIONES • BODAS •
BAUTIZOS • REUNIONES EMPRESARIALES

ESPECIALIDAD EN:
COCHINILLO • CORDERO • ASADOS • PESCADOS

Centro Comercial Sempere • Teléfono 16 00 56 • BEASAIN

SASIETA ZABORTEGIA...ETA ORAIN ZER?

Bixente Apalategi

Lehen ere askotan aipatu izan dut, urtekari honetan bertan, Sasieta Zabortegia irekitzea sekulako jauzia izan dela Goierrirako zabor bilketaren arloan; izan ere, esan daiteke duela urte gutxitako egoera inkontrolatua gainditu egin dugula eta egun, han hemenka zabor pila erdi-ezkuturen bat agertzen bada ere, Goierriko hiri hondakinak ongi tratatuak daudela. Sasieta Amankomunitatea sortu zenetik hobekuntza nabaria izan da, Beasainen behintzat: edukinontzi edo kontenedoreen kopurua egokitu egin da, zenbait puntutan nabaritzen zen eskasia gaindituaz; hasierako edukinontzi metaliko haien ordez zarata gutxiago ateratzen duten plastikozkoak jarri dira; garbitu ere maiz egiten dira, usain txarrik bota ez dezaten... Aurrerapausua haundia izan da, dudarik gabe.

Bestalde, Sasietako arduradunei aitortu zaie iniziatiba asko eta onak izan dituztela, bilketa selektiboaren arloan, batez ere: gaurregun edonork du etxetik gertu beira biltzeko kontenedore bat..; papera, botika, pila eta autoetako olioa ere selektiboki biltzen dira..; orain plastikoa biltzeko egitasmoa ari dira ikertzen...

Gainera, beste urrats garrantzitsu bat ere hasi dira ematen: informazioa, eta batez ere gazteentzako informazioa, Goierriko ikastetxe guztietan egiten ari diren dibulgazio kanpaina baten bidez.

Hala ere, informazioa oso garrantzitsua dela ukatu gabe eta belaunaldi berriak guk baino sensibilitate haundiagoz prestatu behar ditugula garbi edukita, Sasietako arduradunek azpimarratzen dute jendeak ezin hobeki erantzun duela kaleratu dituzten kanpaina berrien aurrean, hau da, goierritarron sensibilitatea haundia dela eta iniziatiba berriei laguntzeko oso prest azaltzen garela.

Baina ez dakit nahikoa azpimarratzen dugun zaborren tratamendu lanak oso garestiak direla, ez baitiote zuzeneko etekinik ematen gizarteari. Belaunaldi berrien sensibilizazio ahalegin horretan, beraz, zaborra gutxiago produzitzen ere irakatsi beharko diegu, exenplua emanez, noski.

Oria ibaiaren saneamendua noizko?

Halabaina, eta Sasietako arduradunei inongo meriturik kentzeko asmorik gabe (ez baitago beraien esku), ba da arazo bat, larria gainera, konpontzeke dagoena: gaurregun, zabortegiak ixurtzen dituen lixibiatuak (ur zikinak) Durangoko depuradorara eramaten dira biziklatzeko, baina, orain kostatzen zaigun dirutzaz gain, pentsatu behar dugu Sasietak (itxi eta gero ere) urte askotan ixuriko dituela lixibiatuak eta (orain soluzioa desegokia eta txarra bada ere) zabortegiaren ustiapena amaitutakoan ezin izango dugula berdin jarraitu; garaia heldu zaigu beraz, berriro eta ozenki oria ibaiaren saneamendua esijitzeko, non integraturik joan beharko duen Sasietak ixurtzen dituen lixibiatuak tratatzeko gai izango den depuradora bat.

Hiri eta industri hondakin inerteentzako zabortegia noizko?

Eta beste arazo bat: Sasieta Zabortegia eraikitzeko propiektuan bertan garbi azaltzen zen zabortegi hau Hiri Hondakin Solidoak soilik jasotzeko zela, baina burutzeke (eta burutubehar) gelditzen zela hiri eta industri hondakin inerteen zabortegi berezi baten proiektua. Gauza jakina da, gainera, inerteen zabortegi batek ez duela eskatzen zaborrak era txukun eta ordenatu batez jasotzea besterik, azpiegitura eta pertsonalaren gastuak askoz ere txikiagoak direlarik eta, lixibiatuak ixurtzen ez dituenez, etorkizunerako arazorik sortzen ez duelarik. Hala ere, nik jakin ahal izan dudanez, martxan dago proeiktu bat hirietako hondakin inerteak Sasietara botatzen hasteko. Niretzat irtenbide hau onartezina da, alde batetik Sasietaren beraren bizitza asko laburtu egingo lukeelako, eta bestetik hain beharrezkoa den hondakin industrialen zabortegia atzeratu (edo betirako deuseztu) egingo lukeelako.

Eta Sasietaren ondoren zer?

Badakit Sasieta ireki berria dela oraindik, baina ezin dugu horregatik lasai gelditu, haren bizia laburra izango baita (20/25 urte, gehienez ere).

Entzun dudanez, Foru Aldundiak Gipuzkoa osorako labe erraldoi bat eraikitzeko asmoa du. Ez dakit hori izango den bide egokiena ala ez (ene eritzi pertsonala eraikuntza erraldoien aurkakoa den arren), baina ez zait iruditzen gehiago eztabaidatu gabe hartzeko erabakia denik. Beste zenbait proiektu haunditan gertatu dena ikusita, uste dut leku haundiagoa ireki beharko litzaiokeela udal eta herritar erakundeen eritziari.

Dena den, Beasainen duela urte batzu baino askozez ere hobeto gauden arren, garbi eduki behar dugu zaborren arloan, beste zenbaitetan bezelaxe, badugula zer eginik. Hauxe izan da lantxo hau idaztera bultzatu nauen arrazoia.

Ea noiz iristen den nahi duten guztiak jaietara etortzen diren urtea...Bitartean,

Jai alaiak igaro, beasaindarrok!

Nahiz eta Sasieta ireki berria izan, haren bizia laburra izango baita (20 - 25 urte).

CARTA DESDE BUENOS AIRES

Etnoantropología Vasca

por Nicomedes Iguain

1) ETNOANTROPOLOGIA UNIVERSAL

Antropología

Indagación heurística acerca del hombre, de su naturaleza, de sus modos de pensamiento, de sus modos de comportamiento.

Metodología.

Proceso analítico que estimula la potencia volitiva del antropólogo con la intención de descubrir en cada ser humano -en una sociedad etnoculturalmente organizada-, un principio de identidad fundamentado en su complexión raciovitalista.

Antropoicología etnocultural.

La etnoantropología constituye un ecosistema geocultural -biosocialmente estructurado-, en régimen preconfigurado mediante un principio de interacción entre el hombre y el medio etno-geo-cultural en el que vive.

La percepción psicosocial de los modos de pensamiento y de los modos de comportamiento del hombre -en las diferentes comunidades establecidas en el Orden Intercontinental-, permite establecer los fundamentos de una nueva disciplina científica que sugerimos nominalizar como Antropoicología (ávtcporos = hombre; ôikos = casa, morada, entorno biosocial; hoyos = tratado, estudio).

Antroposofía y ecognosis: imbrican una visión multidisciplinaria que comprende todas las modalidades bioexistenciales del hombre (...desde el pensamiento mágico-prelógico hasta el saber científico hipersistematizado; desde la lingüística semiográfica primigenia hasta la informática expandida en el microchip; desde la gruta cavernaria hasta la torre de cemento-acero-cristal; desde la trofología del bisonte hasta la "novelle cuisine"; desde el trabajo "homo faber", hasta su exaltación lúdica -"homo ludens"-; desde el nacer a la vida hasta el trascender liminarmente a la muerte...)



El pensamiento antropológico (antroposofia), deviene en el estudio acerca del pensar antropológico (antropología), instaurado en medio etnocultural socio-histórico en el que el hombre concibe su proyecto integral de vida (ecognosis antropológica).

Pensamiento - Imprimación.

Ideación-congnición es un proceso de acción ordenado a la sistematización de códigos lingüísticos de pensamiento y de comunicación -sígnicos, simbólicos, iconográficos- en relación transpersonalizada de emisión-percepción de información precodificada. Constituyentes psicobiológicos e instituyentes socioantropológicos otorgan un sello de distinción glosemática a los sistemas de comunicación intersubjetiva, emanados del pensamiento. "Signum representationis symbolice rebus tribuere": atribuir al acontecer reico un signo de representación simbólica. (N.I.A)

La evolución de los sistemas de comunicación, desde el arranque minimalmente gregario de los pequeños grupos humanos primigenios (mitosimbolismo) hasta las grandes comunidades socialmente organizadas, ha debido progresar a través de instancias de perfecciona-



miento que puede delimitarse en el marco de un sistema que oscila entre el perfil del gestualismo más elemental y las manifestaciones de articulación fonológica de la más alta complejidad.

Comunicación - expresión.

La antropología lingüística -parcela disciplinaria del saber antropológico cultural -se enraiza en el estamento científico de la comunicación.

La semiolingüística, desde la perspectiva de lo antropológico, procede del virtualismo potencializador del biopsiquismo del hombre, estableciendo las bases de codificación elementales para la intercomunicación social a partir de la generación de los protoconstituyentes atómicos de naturaleza semiográfica: el grafión-ferente reico, el neurofotión -referente simbólico, el glosemión- transferente lingüístico.

El sistema de comunicación gestual, kinésico, objetual -por determinar algunas modalidades inscriptas en la tipología de los lenguajes ideográficos, petrográficos, petroglíficos-, han sido en la historia etnolingüística del progreso de civilización del hombre, algunos de los constituyentes culturales biosociales más destacados.

2) ETNOANTROPOLOGIA VASCA

Bioantropología vasca.

Milenarias tradiciones vascas han configurado en el espíritu del Pueblo Euskaldun, un estilo de vida que ha internalizado un universo de cultura étnica de gran riqueza y variedad en cuanto se refiere a sus expresiones bioantropológicas.

En la cornisa del Golfo de Vizcaya - instalada en ambas vertientes cántabro/pirenaicas- tiene asiento territorial de Comunidad Vasca de Origen (CO.V.OR).

Desde profundos estratos de la prehistoria nos han sido legadas espléndidas manifestaciones etnoculturales, cuidadosamente conservadas y celosamente defendidas por innumerables generaciones de vascos. Ha existido un compromiso no estipulado - individual y comunitario- de no interrumpir la cadena de tradiciones étnicas, siguiendo normas que consolidan pautas de comportamiento tipificantes en el campo de la teoría denominada "Genética de las poblaciones".

El hábitat -espeleológico o al aire libre-, el paisaje -montaña... mar-, el arte pictórico, la música, las artesanías, los juegos, las danzas, el deporte, la cultura integral del vivir etnoantropológicamente -en una palabra-, han otorgado un sello imperecedero al modelo biocultural que los vascos han impreso transhistóricamente a sus innumerables generaciones. Instalados hoy en muchas circunscripciones territoriales del Orden Intercontinental, han consolidado el universo de las Comunidades Vascas del Exterior (CO.V.EX).

Antropoicología etnocultural vasca.

La etnoantropología vasca enhebra un ecosistema cultural, biosocialmetne estructurado en el ejercicio psicomotriz de una memoria étnica -de vigencia plurimilenaria-, mediante un principio de interacción entre hombre "euskaldun" y el medio etno-geo-cultural en el que ha vivido.

"Eusko-lurra", "euskal-herria", Eusko-etxea", "euskaldun-gizona", "euskal-izena", son los protoconstituyentes conceptuales fundamentales de la etnoantropología vasca. Arriaga su nombre el hombre vasco, en el nombre de la tierra vasca. Propósitos toponímicos de nominalización, equivalen a asunción de identidad etnoantropológica, entre los vascos. El asentamiento territorial sustancializa el arraigo de la memoria étnica; el arraigo en el tiempo impulsa la tradición; la tradición asienta futuricidad en la inveterada troncalidad etnocultural. Debe el hombre vasco su identidad a la identidad familiar y la familia tiene arraigo de identidad en la virtualidad troncal del solar vasco ("eusketxe"), asentado cardinalmetne en los profundos estratos de la tierra vasca ("eusko.lurra"). Pensamiento ("homo intelligens"), voluntad ("homo volens"), sentimiento ("homo sentiens") han asumido -en la personalidad del hombre vasco ("euskaldun gizona") y el entorno de biosfera etnocultural en el que respira y se inspira su espíritu-, caracteres manifiestos de un ecosistema antropológico vasco.

La investigación que el Departamento se propone realizar, intentará esclarecer -mediante un enfoque interdisciplinario- las múltiples orientaciones que comprende el análisis de una ecognosia etnocultural "Euskaldun" en el amplio panorama de la Intercontinentalidad Etnica Vasca ("Denak-Bat") como proyección de la Comunidad de Origen asentada en los Siete Territorios Históricos Vascos ("Zazpirak-Bat").

El ecosistema antropoicológico vasco adquiere fisonomía de caracterización tipológicamente diferenciada, en la comunidad vasca que -desde el siglo XVI- tiene asiento geocultural en la República Argentina -8° Territorio Histórico Vasco.

"AI GEALA": BEASAINEN EUSKARAZ

Orain urtebete inguru sortu zen Beasaingo azken elkartea: "Ai geala". Gazteena izateaz gain, badu gure elkartE honek bestelako berezitasunik ere: ez daukagu tokorik biltzeko, ez sukalderik afari goxiak prestazeko. Horiek denak ekintza jatorrak izanik ere, beste zeregin batzuetarako elkartu gara gu. Hain zuzen ere, euskararen erabilera eta euskal kultura bultzatzeko, beasaindarren betidaniko hizkuntza gure etorkizunekoa ere izan dadin. Hori da gure asmo bakarra, eta asmo horrekin bat datozen guztiak nahiko genituzke gure elkartean, talde guztiz ireki, zabal eta integratzailea baikara. Dagoeneko 150 bat lagun bildu gara, baina gure ateak zabalik daude kide berriak hartzeko ere.

Gure helburu orokor hori bi puntu nagusitan laburtzen da, esan bezala: batetik, euskararenganako kontzientzia piztu nahiko genuke eta bere erabilera bultzatu, ahoz nahiz idatziz, herriko bizitzaren arlo guztietan: kalean eta lantegian, bulego eta dendetan, taberna eta eskoletan; bestetik, herriko kulturgintza aberastu nahi genuke, ez egiten dena ordezkatuz, baizik eta dagoena indartuz eta guk geuk ere hainbat proiektu sortuz, beti ere saiatuz kulturaren eskaintza euskaraz izan dadin.

Ideia hauek ekintza zehatzetan gauzatzeko, hainbat lan-talde sortu ditugu, bakoitzak bere arloan egoera aztertu eta lanerako plangintza bat egiteko. Kirol eta hezkuntzako taldea herrian kiroletan aritzen diren talde guztiekin biltzen hasia da, beren jardunean hizkuntzarekiko arreta izan dezaten, batez ere haurrekin ibiltzen direnek, kontuan izanda herriko eskolume ia guztiek euskaraz ikasten dutela. Beste talde bat Udaleko Euskara Batzordearekin lankidetzan ari da, herrian antolatzen diren ekintzak aztertu eta euskarak zenbaterainoko tokia duen ikusteko.

Horiek alde batera utzi gabe ere, herritar guztiei begira, Kultura eta Kale giroko taldeak egitarau aberatsa antolatu du, urte osoan zehar aurrera eramateko: batetik hitzaldi-zikloa, bestetik bisita gidatuak eta azkenik helduentzako ikastaroak, azken orduan sor litezkeen ustekabeak ahaztu gabe. Hilero-hilero hitzaldi edo mahainguru bat antolatzeko asmoa dugu, ahalik eta hizlari eta gai interesgarrienekin. Martxoaren 24an hasi ginen, ETBko Andoni Aizpuru eta Euskadi Irratiko Pello Zabala eguraldiaren berriemaile goierritar ezagun eta jakintsuak ekarrita. Hortik aurrera, zabala bezain egungoa da gure proposamenen zerrenda: Goierriko ekonomi egoera, sukaldaritzaz Karlos Argiñanorekin eta beste hainbat, lerrook idazteko garaian guztiz zehaztu gabe badaude ere.

Udaberrian zehar, herriko zenbait bazter eder baina ezkutu samar hobeto ezagutzeko asmoz, bisita gidatuak hasi gara antolatzen, herritar guztiei zabalik beti ere, gidaritzat gure txoko eta historia jakingarrienen berri oso ondo dakien Josetxo Zufiaurre hartuta. Bisitatu eta ezagutu nahi ditugunak hauek dira, besteak beste: Astigarretako kartzela, Matximentako Igartzola, Arriarango eliza, Beasaingo mugarri eta iturriak...

Ikastaroak ere hasi gara antolatzen, ikusirik eskolatik kanpo ere badela jendea hainbat gauza ikasi nahi duena eta horretarako aukera nahi duena: hasteko, Bertsolaritza ikastaro bat antolatu dugu, udazkenean egingo dena, bertsoak botatzen edo nola egiten diren ikasi nahi duten heldu guztientzat. Irakaslea ere ez da nolanahikoa: Mikel Mendizabal bertsolari itsasondoar trebea.

Gure asmo eta nahiak ez dira hor bukatzen, ez kulturgintzan ez beste edozein sailetan, baina gure ahalmen txikiak mugatzen gaitu. Zure laguntzarekin pauso berriak eman ahal izango ditugu. Guregana bildu nahi izan ezkero, edozein partaiderekin hitz egin dezakezu edo bestela Udaleko Euskara Zerbitzuan galdetu. Zain gauzkazu.

CASA IMAZ
Tejidos-Confecciones-Ropa hogar
Mayor, 10
BEASAIN

AITZGORRI MENDIZALE ELKARTEA: TRAVESIA LEGAZPIA BEASAIN

Aurten ere zuengana hurbiltzen gatzaizkizue Beti-Bizi Kultur Elkarteko lagunei laguntzatxo bat luzatuz. Aurreko urteetan bezala mendiari loturiko gaia landuko dugu, aurtengoan Legazpitik Beasaina egin daiteken zeharbidea azalduko dugularik.

Legazpitik Haizeleku mendiaren ekialdeko malda inguratuz hasten da bidaia, bertatik Aztiria auzora iritsi ahal izango gara. Auzo honetatik aintzinan Mutiloako meatza eta Ormaiztegi elkartzen zituen bagoixka trenbidea jarraituz Liernira iritsiz. Bertatik Idiazabalgo auzoa den Urbizura abiatuko gara bai Ezpainolamendi zeharkatuz edo bai inguratuz. Azkenik, Urbizutik Beasaina abiatuko gara Antzizar ingurutik. Guzti hau egiteko bost ordu inguru behar direla aipatu behar da.

De nuevo, como en años anteriores, nos disponemos a colaborar con nuestros amigos de la sociedad Beti-Bizi a fin de aportar nuestro ya habitual trabajo sobre el tema de montaña. Dicho esto, pasamos a describir una nueva travesía montañera; esta vez entre la Villa de Legazpia, con sus 403 metros de altitud, y Beasain, con 160 metros.

Salimos de Beasain bien por ferrocarril o bien por carretera para llegar a la Villa de Legazpia, ligada esta a la historia de las ferrerías, ya que en el siglo XVI existían en Legazpia veinticinco ferrerías entre las que se encontraba la de Mirandaola, reconstruida el año 1952 y que se suele poner en funcionamiento una vez al año con motivo de la festividad de Santa Cruz, que se celebra el día 3 de mayo.

Posee esta villa la iglesia parroquial de Nuestra Sra. de la Asunción que data de 1700 y fue posteriormente restaurada por los beasaindarras, Hermanos Carrera.

Para comenzar nuestra andadura, nos dirigimos a la estación de ferrocarril y cruzamos las vías para situarnos en el andén opuesto. A la izquierda del edificio comienza un estrecho camino que enseguida se abre. Seguimos de frente y llegamos a un cruce de caminos. Continuamos de frente, ahora ascendiendo, para salir al collado Ategoiti, por donde cruza la carretera que del cruce de Motxorro se dirige a Gabiria; existe también en este punto un caserío. Situándonos frente a éste, tomamos la senda situada a su derecha (hay una fuente a la izquierda junto al camino). Seguimos por dicha senda con una alambrada al lado izquierdo y enseguida entroncamos con una pista. La seguimos de frente para ir bordeando el monte Haizeleku por su ladera este. Llegamos a una langa metálica que la dejamos a nuestra izquierda. Luego cruzamos otra langa de madera junto a una borda a nuestra izquierda; al poco tiempo dejaremos a la derecha otra borda. Pronto veremos de frente, sobre una loma, los caseríos Etxe Aundi. Etxetzu Goiko-Beko y Garaikoetxea, pertenecientes al barrio de Aztiria, al que llegamos una vez rebasados dichos caseríos y por una carretera asfaltada que entronca (justo a la altura de dicho barrio) con la que une la Villa de Legazpia y Zerain.

Aztiria auzoa (barrio de Aztiria)

Este barrio de Aztiria se encuentra situado entre los montes Haizeleku de 812 metros de altitud y Otaño de 784 metros, y divide las cuencas de los ríos Oria y Urola. El citado barrio pertenece a Gabiria, aunque sus terrenos se reparten entre Gabiria, Legazpia y Mutiloa. Consta esta barriada de la ermita de Santa Marina, un pequeño frontón, una fuente, un hayedo y dos o tres casas; también existen dos bares restaurantes: Asador Aztiria, Tlf. 733622 y Bentalehor Tlf. 730094 (ambos cierran los lunes).

Salimos de Aztiria por la carretera en dirección a Zerain. Enseguida llegamos a unos chalets donde la carretera tuerce a la derecha. Dejamos esta y nos dirigimos de frente hacia los chalets y, justo al entrar en esta zona, tomamos una pista a mano derecha que desciende. Pronto encontramos un cruce: tomamos a la derecha para continuar bajando por la pista principal; luego tuerce a la izquierda para llegar a una langa metálica y entroncar con una carretera asfaltada que de Gabiria se dirige a las minas de Mutiloa (que luego las vemos situadas a la derecha de la marcha). Tomamos dicha carretera a la izquierda y vemos un cruce con varias carreteras. Tomamos la primera a la derecha, que baja, y se dirige hacia Mutiloa. Enseguida dejamos unos caseríos un poco más altos a nuestra izquierda. Después de tomar una

